



HITZARMENA

Arrasateko Udalaren eta Arkodi elkartearen artean Mondraberri.com web gunea elkarlanean antolatu eta finantzatzeko

Arrasaten, 2017/06/23an

BILDURIK

Alde batetik, Iker Arana Fernandez jauna, NA 72.584.357Z duena, adinez nagusia, Arkodi elkartearen izenean eta errepresentazioz.

Eta bestetik, Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, haren izenean diharduena, horretarako behar bezala ahalmena dago eta.

Bi aldeek, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

LEGE TESTUINGURUA

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Albisteak eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, besteak beste. Lege horren arabera, beraz, Euskal Herriko herri-aginteez –eta, zehazkiago esanda, udalek– euskara zabaldu eta zabaltzen laguntzeko obligazioa dute, bai eta komunikabideen arloan ere.

Horretaz gain, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetako buruzkoak, 7 artikuluan zehazten du udalei izendatzen zaiela eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazio planifikatzeko eskumena.

AZALPENAK

Azken urteotan Arrasaten eta Debagoienean herri eta eskualde komunikabideen alde egindako lan eta ahaleginaren fruitu emankor bilakatu dira herritarrengandik hain harrera ona eta beroa jaso duten Goienkaria eta Goiena Telebista eta, oraintsuago, interneten Arrasateko Atari bihurtu den "Mondraberri" egunkari digitala.

Mondraberri web gunea Portaloi elkarteak sortu zuen 2004ko azaroan, eta harrez gero, egunero-egunero jardun du herriko albiste eta gorabeherak internetez zabaltzen, modu horretara beste ekarpen bat eginez gure herriko informazio alorrera. Aintzat hartzeko moduko ekarpena, internet erabiltzen duelako, eta denetarikoa gaiak jorratzen dituelako. Hainbat urtean Portalaloi elkarteak Mondraberri.com kudeatzen aritu ondoren 2013an Arkodi elkarteak hartu zuen bere gain.

Honen guztiaren ondorioz, euskarari eta herriaren errealitatearen informazioari mesede egiten dion proiektua da Mondraberriena, Arrasateko Udalaren ustez.

Udalak modu positiboan hartzen du Mondraberri egiten duen lana eta hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, ondorengo klausulen arabera:



KLAUSULAK

Lehena.- Arkodi elkarteak eta Arrasateko Udalak, Mondraberri komunikazio proiektua dela eta, elkarlanean 2017 urtean burutuko dituzten jardueretarako diru laguntza xedatzea da hitzarmen honen helburua.

Bigarrena.- Hitzarmen honen bidez Mondraberriren jarduerak subentzionatuko ditu Arrasateko Udalak, eta hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera burutuko ditu Mondraberriek jarduera horiek.

Hirugarrena.- Arrasateko Udalak 2017 urtean 30.000 €-ko diru laguntza emango dio Arkodi elkarteari, Mondraberri web gunearen jarduerak finantzatzeko. Hitzarmen hau sinatu eta berehala jasoko du diru laguntzaren %60a eta gainerakoa diru laguntza zurututakoan.

Laugarrena.- Mondraberriek konpromiso hauek hartzen ditu:

- Mondraberriek berak landuko dituen informazio eta eduki guztiak euskaraz emango ditu argitaratu.
- Arrasateko Udalaren jardueren informazioa emango du, objetibotasunez eta zuzentasunez.
- Zabaltasunez jokatu du informatzerakoan, errealitatearen ispilu izanik, batzuei eta besteei leku duina eginez.
- Herriko kulturgintzak eta kirol munduak tratu berezia jasoko dute Mondraberriin, elkarbizitzarako duten garrantziaz kontuan izanik.
- Mondraberriek autofinantzaketa mailan gora egiteko politika eraginkorrak sustatuko ditu.
- Urteko ekintzen azalpen memoria aurkeztuko du Mondraberriek datorren 2018ko urtarrilaren 15a baino lehen, bai eta proiektuaren finantza egoerak (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua)

Bosgarrena.- Koor dinazio mekanismoak eratuko dituzte bi aldeek, erabakiak hartu aurretik adostasuna lortzea beharrezkoa den kasuetarako. Koor dinazio mekanismo gisara bitariko batzordea eratzea adosten da, hitzarmen honen betetze eta interpretazioan sor daitezkeen arazoak ebazteko egitekoarekin. Batzorde hau osatuko dute Kultura eta Euskara sailtako zinegotzi eskuordetuak eta Mondraberriko ordezkariak.

Seigarrena.- Arrasateko Udala babesle moduan agertuko da, bai Mondraberriin bai eta ekintza horien kartel iragarleetan ere.

Zazpigarrena.- Hitzarmen honen iraunaldia amaituko da Arrasateko udalak aurkeztutako zuriaketaren ondorengo ebazpena hartzen duenean.

Zortzigarrena: Alderdiek ez badituzte dagozkien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.

ARRASATEKO UDALEKO
ALKATE-UDALBURUA

ARKODI ELKARTEKO
LEHENDAKARIA

